

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- GIZARTE EKINTZA SAILAREN FORU DIPUTATUAREN ETA GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO PRESIDENTEAREN EBAZPENA, 2019KO IRAILAREN 11KOA, ZEINAREN BIDEZ XEDATZEN BAITA NEREA URIEN AZPITARTE ANDREA GUFE-KO GERENTE IZENDATZEA.

OINARRI JURIDIKOA.- GUFEn estatutuen aldaketari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 8. artikuluan ezartzen denaren arabera, Gobernu Batzordeko presidentek libreki izendatu eta kargugabetuko du GUFeko gerentea; gainera, gerentearena konfiantzazko kargua izango da, eta aplikatzekoak izango zaizkio goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman bereziak arautzen dituen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren xedapenak.

OINARRI JURIDIKOA.- Horrez gainera, GUFEn estatutuen aldaketari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 6.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernu Batzordeko presidentearen eskumena da GUFeko gerentea eta arloetako zuzendariak izendatzea eta kargugabetzea.

Aurreko guztia dela eta, GUFEn Gobernu Batzordeko presidentek honako hau


EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Nerea Urien Azpitarte GUFEn Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko gerente izendatzea. Izendapena aurtengo irailaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Interesdunari, GUFeko Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko buruari, Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko buruari, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruari, Zerbitzu Orokorren Departamentuko buruari eta Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko buruari, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari jakinaraztea ebazpen hau. Aurrekoa bete bedi.

Bilbon, 2019ko irailaren 11n

GUFEn GOBERNU BATZORDEKO PRESIDENTEA



Sin.: Sergio Murillo Corzo